

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea Aiarako Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal ordenantza**

Udalak 2018ko irailaren 14ko ohiko bilkuran hasierako onarpena eman zion Aiarako Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal ordenantzari.

Espedientea jendaurrean egon zen hogeita hamar egunez, iragarki taulan eta ALHAOn (121. zk., 2018ko urriaren 22koa). Aldi horretan ez zen hasierako onarpenaren kontrako alegazio idazkirik aurkeztu.

Ondorioz, erabakia behin betiko onartutzat jotzen da eta, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, ordenantza hori oso-osorik argitaratzen da. Hona hemen:

#### **Aiarako Emakumeen Gelaren erabilera arautzen duen udal ordenantza**

Emakumeen Gela Aiarako ABA berdintasunerako foroaren proposamen baten ondoren abiarazten da, emakumeentzako eta berdintasunerako eremu fisikoa behar zela uste baita. Horrenbestez, Emakumeen Gela esparru dinamikoa eta irekia izateko sortzen da, enpatia lantzeko eta ikasteko eta informazioa biltzeko topagunea izateko, eta ahalduzko sareak sortzeko eta berdintasuna eta emakumeen askatasuna parte hartzea eta presentzia sustatzeko esparrua izateko.

Aiarako Udalak ontzat eman du foroaren proposamena, eta ondorioz Emakumeen Gela abiarazten du. Berak eta foroak kudeatuko dute.

Araudi honen xedea da lokala nola erabiliko den eta nola kudeatuko den zehaztea. Hain zuzen ere, hauxe finkatuko da: zer entitatek, pertsonak eta taldek erabil dezaketen Gela (ez-augarrien eta jardueren arabera), zer egin behar den erabiltzeko, ordutegiak, esparruaren eta bertako materialen gaineko erantzukizuna, eta koordinazio eta kudeaketa organoa.

#### **I. KAPITULUA: ESPARRUA, XEDEA ETA ERABILERA**

##### **1. artikulua.- Emakumeen Gela**

Emakumeen Gela Aiarako Udalak eta Aiara Berdintasunaren Alde (ABA) berdintasunerako foroak kudeatuko duten esparrua da. Esparruaren titularra Udala da, baina ez da erabiliko Udalak antolatzen dituen jarduerak egiteko bakarrik; aitzitik, Gelaren kudeaketa hainbanatu egingo da eta horrela emakumeen esku ipiniko da, bizitzako eremu guztietan sendoago izaten laguntzeko. Helburu horretarako topaketak, elkartasun eta truke sareak, eta trebakuntza eta ikerkuntza jardunaldiak antolatuko dira.

##### **2. artikulua.- Xedea**

Emakumeen Gelak bi xede dauzka: batetik, emakumeen topaketarako, eztabaidarako eta hausnarketarako esparrua izatea; bestetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko erreferentzia izatea. Hain zuzen ere; Gelan plazaratuko dira bizitzako eremu guztietan emakumeak eta gizonak berdinak izatea lortzeko egiten diren politika, programa eta proiektu guztiak.

Emakumeen Gelaren oinarria feminismoa da, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako tresna eraldatzailea.

**3. artikulua.- Erabiltzaile elkarteak: motak**

Emakumeen Gela honako hauek erabil dezakete: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jarduerak antolatzen dituzten pertsonak, elkarteak eta taldeak, edo helburuen artean (eta barne antolamenduan) genero ikuspegia dutenek, baldin eta ezarritako printzipioak eta jardun ildoak betetzen badituzte.

## II. KAPITULUA: JARDUN ILDOAK

**4. artikulua.- Jardun ildoak**

Hauexek dira Emakumeen Gelaren jardun ildoak:

- Emakumeek bizitzako eremu guztietan parte hartzea eta elkarteetan biltzea sustatzea.
- Berdintasunerako politikak eta programak egitea, gauzatzea eta ebaluatzea bultzatzea.
- Emakumeen bizitza eta gizarteko posizioa hobetzeko lan egitea.
- Berdintasunaren inguruko trebakuntza, sentsibilizazioa eta informazioa sustatzea.
- Berdintasunaren inguruko ikerkuntza, berrikuntza eta ikuspegi berriak bultzatzea.
- Genero ikuspegia txertatzea gai eta entitate guztietan.

## III. KAPITULUA: ESPARRUA ETA ERABILERA

**5. artikulua.- Esparrua**

Emakumeen Gela honako hauetarako erabil daitekeen esparru bakarra da: genero ikuspegiaren inguruko solasaldiak, bilerak, topaketak, erakusketak, antzerkiak, kontzertuak eta, oro har, denetariko jarduerak.

Gelan honako hauek daude horiek egiteko: aulkiak, mahaiak sofa bat eta materiala gordetzeko erabil daitekeen armairua. Gainera, panelak ere badaude, argazkiak eta informazio euskarriak ipintzeko erabil daitezkeenak.

Beraz, Emakumeen Gela egokia da erabiltzaileen beharrianetarako.

Garbiketa Udalaren kargura egongo da. Nolanahi ere, lokala erabilitakoan hasieran egon den bezala utzi behar da.

**6. artikulua.- Erabilera eta eskaera motak**

1. Emakumeen Gelako jarduerak hainbat entitatek, pertsonak edo taldek antolatu ditzakete, baldin eta horretarako berariaz ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. Emakumeen Gela erabiltzeko eskaera udaletxeko erregistroan aurkeztu behar da jarduera egin baino 7 egin lehenago gutxienez. Eskaeran honako datu hauek agertu behar dira: elkar-tearen, pertsonaren edo taldearen datuak (ordezkaria, IFK edo NAN, helbidea eta telefonoa), helburuak, eta jardueraren deskripzioa, eguna eta ordutegia. Jarduera egiteko materiala behar bada (proiektagailua, soinua), eskaeran adierazi behar da. Udalak beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatu ahal izango ditu.

3. Udalak 48 ordu pasatu baino lehen erantzungo du Emakumeen Gela erabil daitekeen ala ez (okupatuta dagoelako edo baldintzak betetzen ez direlako). Erantzuna eskaeran agertzen den helbide elektronikora mezua bidaliz edo telefonora deituz emango da.

4. ABA foroko elkarteak ez dute edukiko zertan aurkeztu eskaera erregistroan. Nahikoa izango da berdintasuneko teknikariari idaztea edo telefonoz hots egitea, zer egin nahi den adieraztea eta Gela egun eta ordu horietan libre dagoela egiaztatzea. Nolanahi ere, proiektagailua edo soinua behar badute, erregistroan eskatu beharko dute.

**7. artikulua.- Ordutegia**

Emakumeen Gela astelehenetik igandera erabil daiteke, goizetik gauera. Hala ere, beste noizbait erabili nahi izanez gero, baimena emango da, arrazoiak azaldu ondoren.

**8. artikulua.- Gelaren erabileraren koordinazioa**

Gela erabiltzeko baimena jasotzen duenak esparrua ondo erabili behar du eta bere jarduera eraginkortasunarekin koordinatu behar du.

## IV. KAPITULUA: ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

**9. artikulua.- Kudeaketa**

Emakumeen Gela batera kudeatuko dute Udalak eta ABAk.

Gelaren erabileraren jarraipena eta ebaluazioa ABAk egingo ditu. Urtean-urtean bilera irekiak egingo dira Emakumeen Gelaren erabileraz hitz egiteko eta horren inguruko iritzia biltzeko. Bilera horietan Emakumeen Gelaren urteko memoria aurkeztuko da.

**10. artikulua.- Dinamizazioa**

Emakumeen Gelaren erabilera, koordinazioa eta dinamizazioa Udalaren berdintasuneko teknikarien ardurak izango dira. Berdintasuneko teknikariaren esku egongo dira Gelaren plangintza, ebaluazioa eta koordinazioa. Teknikari horrek bileretako erabakiak ezarri eta koordinatuko ditu, araudian ezartzen diren erabakiak hartuko ditu (eta, oro har, esparrua ondo erabiltzeko behar direnak ere bai), eta urteko memoria egingo du.

## V. KAPITULUA: ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

**11. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak**

Gela ezarritako ordutegian eta egunetan erabili behar da.

Elkarte, entitate edo pertsona batek Gela jarduera baterako erabiltzeko eskaera aurkezten duenean, pertsona arduraduna izendatu behar du.

Eskaera aurkezten dutenek Gelako araudia onartzen dute esparrua erabiltzeko.

Lokala eta bertako baliabideak erabiltzen dituztenek elkarbizitzako arauak bete behar dituzte: batetik, esparrua behar bezala erabili behar dute; bestetik, jardueretan parte hartzen dutenek baliabidearen erabilpen egokiaren ardura hartu behar dute eta egiten dituzten kalteak konpontzeko konpromisoa hartu behar dute.

Gelaren erabiltzaileek funtzionamendu egokia sustatu behar dute.

Emakumeen Gelako baliabideak eta materialak bertan erabili behar dira; hau da, ezin dira handik atera, berariazko baimena eduki ezean.

Elkarteek, entitateek eta pertsonak Emakumeen Gelan gordetzen dituzten materialei ezer gertatzen bazaie, Udalak ez du edukiko inolako erantzukizunik.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2018ko abenduaren 11

*Alkate-udalburua*

*GENTZA ALAMILLO UDAETA*